



Oñatiko tren

Majo kostata etorri zan **trena** Oñatiraiño. Eta, hala ta be, ez eben askotzarik iraun: 44 urte bakarrik. Vasco-Navarro ize-neko lineiaren adarra zan San Prudentziotik honaiño heldu xakuna **1923ko agorraren 30an**, San Migel bixamonian. **Victoria Eugenia erregiña** dotoria agertu zan **inaguraziñukuan**; gizon barik, Alfonso XIII.a oso nahastuta eguelako egun batzuk lehenago M. Primo de Riverak jeneralak jo eben estadu-golpian. Lau hamarkada eta erdi horreittan makinatxo bat fan-etorri egin eben gure trentxuak **1967ko abenduaren 31n**, Urte Zahar egunez, **azkenengo biajia burutu arte**. Orain dala gizaldi erdi, hain zuzen be.

Lehenengo hamabost urtietan lurrunezko makiñiak, txokolateriak, tiraketan zittuan bagoiak; orain antxiñako estaziñuaren onduan bistan daguenaren moduko batek. **Gero**, 1938tik aurrera, **elektrofikauta** geratu zan linea osua. Guk kolore horiko tren ha ezagutu geben, nahiz eta batzuetan bagoi zaharrago eta illunago batzuk be ibiltten ziran. Trenak **Oñatitik** Elorregi auzora **beti puntuan urteten eben**; baiña bueltakuak ez eukan ordu **fijorik**, sarrittan atzerapenakin aillegaitten zalako: hamar miñutu, ordu erdi edota gehixago.

Zenbat oroitzapen dakarkigun trenak! Oñatiko estaziño aldian, Ibarren, egitten gittuan jolasak; San Pedroko geralekuko pasadizuak, gurasuen auzora faten giñanian; hain bizimodu motza euki eben **Garibai-Madalenako geralekuaren inaguraziñokua**; Zubillagako estaziño eta auzuaren ingurukuak; edota San Prudentzion, Zelaiko baserrixaren albuak, eguen estaziño ederraren aurrian egitten gittuan **akaberabako itxoinaldixak**, batian Mondrague aldera eta bestian Bergararuntz hurreratu guran; Eskoriatzatik **Gatzagaraiño**ko igoera luze eta bihurrixa Bitorixarakuan, edota **Maltzagako transbordo konplikaua**, Eibarreko dendetara edo Deba-ko plaiara fatia gura gebenian.

Horreik eta beste gogorapen asko datozkigu burura. Hori akordaitteko aukeratuko dogu Oñatiko estaziño aldeko argazki hau 1960ko hamarkadakua izango da; **trenak bere onenak emunda eukan** ordurako eta, **urte askuan barriztau etzalako**, egoera negargarri samarrian eguen. Batzuk mantenitten saiatu ziran arren, hemen eta beste leku askotan **tren-linea txiki ugari kendu zittuiain**, auto eta autobusen negoziuen mesederako gehixenetan. Gaur egun, **estaziñua** (posta-etxe bihurtuta), **makiña zahar bal-tza eta bidegorri batzuk** (euren zubi eta tunelekin) gelditu dira tren-sare haren lekuko moduan.

J. E.

Fotografia Udal Artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsekua da.